BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

392

EBAZPENA, 2013ko abenduaren 18koa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena, unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarteen federazioentzako eta konfederazioentzako laguntzak emateko dena.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko irailaren 2ko Aginduaz egindako deialdian oinarrituta, eta izapidetutako espedienteak aztertuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarteen federazioei eta konfederazioei ebazpen honen I. eranskinean, eremuka edo lurralde-eremuka sailkatuta, zehazten diren laguntzak ematea, euren jarduerak finantzatzeko 2013. urtean.

2. artikulua.– Diru-laguntzen ordainketa honela egingo da: lehenengo ordainketa aurreratua –emandako diru-laguntzaren % 75ekoa– diru-laguntza onartu ondoren, deialdi-aginduaren 16. artikuluan ezarritakoaren arabera. Bigarren ordainketa –laguntzaren % 25ekoa– «Gastuen justifikazioa» izeneko formulario normalizatua behar bezala beteta –egun arte egindako gastuen fakturak eta ordainagiriak erantsita dituela– aurkeztu ondoren. Agiri horiek 2014ko urtarrilaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira.

3. artikulua.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau web bidez jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 18a.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria,
MARÍA BEGOÑA GARAMENDI IBARRA.

I. ERANSKINA

Konfederazioak

Probintzia	Erakundearen izena	Guztira (euro)
Bizkaia	Ehige	55.657,17
Bizkaia	Ufepa: Euskadiko Konfederazioa	14.342,83

Lurralde-eremuko federazioak

Probintzia	Erakundearen izena	Guztira (euro)
Araba	Denon eskola	48.314,28
Gipuzkoa.	Baikara	56.253,12
Bizkaia	Fapv-Bige	65.432,60

Beste federazio batzuk

Probintzia	Erakundearen izena	Guztira (euro)
Araba	Fapacne	11.083,20
Bizkaia	Fecapp	29.168,15
Bizkaia	Bigef	11.381,55
Bizkaia	Gidari	4.233,63
Bizkaia	Elkargarri	2.788,24
Bizkaia	Fapae	5.729,38
Gipuzkoa.	Feguiapa	15.203,79
Gipuzkoa.	Gigef	17.024,26
Gipuzkoa.	Eskola Txikiak federazioa	7.126,69
Bizkaia	Ikasge	6.261,11